

itzulpena: Joxemari Sestorain



AI BERTO



**Munduko
Poesia
Kaierak**

Al Berto

itzulpena: JOXEMARI SESTORAIN

SS literatura
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Al Berto

© itzulpenarena: Joxemari Sestorain

© edizio honena: Susa

2018ko apirila

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Inork gutxik nahi izaten du bazterrekoa izan, inork gutxik mugaren beste aldeko; bazterrekotasuna, izatekotan, egokitu egiten den zerbait izaten da, kanpotik —boteredunek maizenik— egokitutakoa inondik ere. Ziur aski horixe da Al Bertoren kasua; norma eta arau orokortuetatik aparte bizi izan zen, eta hala, bazterrekoaren etiketa atxiki izan zaio. Bazterreko izatea, baina, nondik begiratzen den izaten da.

Coimbran jaio zen 1948. urtean, goi-burgesiako familia baten abaroan, eta horrek, noski, hezkuntza artistiko apartekoa izaten lagundu zion. Lisboan lehenengo eta Belgikan ondoren, margolaritza ikasten jardun zuen, harik eta hura baztertu eta idaztera dedikatzea erabaki zuen arte. Komunitate hippy batean bizi izan zen Bruselan beste artista batzuekin, eta garai hartako joan-etorrietan oinarritu zen 2017an estreinatutako *Al Berto* filma, Vicente Alves do Ó zuzendariarena. Frantsesez ere idatzi zuen Belgikan bizi zela, eta ingelesa ere ondo zekien, besteak beste bere aitonetako bat ingelesa zelako. Bi tradizio poetiko horien arrastoa suma liteke han-hemenkako erreferentzia batzuetan: Joy Divisioneko kantaria izan zen Ian Curtis, Andy Warhol, Arthur Rimbaud, Jean Ge-

net. 1974an itzuli zen Portugalera eta orduan garatu zuen bere ibilbide poetikoa. *O Medo (Beldurra)* antologia 1987an argitaratu zuen, eta liburu horrek ezarzen du, nolabait, Al Bertoren poesiaren muina. Dena den, kaier honetako hautaketarako abiapuntu gisa Jorge Reis-Sá editore eta idazleak apailaturiko *O último coração do sonho (Ametsaren azken bihotza)* antologia erabili du Joxemari Sestorainek. Antologia horretan, Al Bertok bere errezitaldietan errepikatzen zituen poemak sartu ziren, eta horixe litzateke, beraz, poetaren beraren poema-hautaketa pertsonalena. Izan ere, haren poemak ahots goran irakurtzeko idazten zituen, eta hala, musikalitate eta erritmo ederreko aleak ditugu.

Poema horiez landa, baina, beste poema sorta batzuk aurkituko ditugu kaier honetan; hala *O Medo*tik ateratakoak, nola beste testu solte batzuetatik eskuratuak (*Udazkeneko eskutitzak*, esaterako). Azken horietan, ziur aski, Al Berto gordinago bat topatuko du irakurleak, ez hain lirikoa akaso, baina barne-muinetaraino sartzen den indar poetikoduna.

Al Bertoren poesiaren ezaugarri nabarmenetako bat gorputzak eta haren alderdi (ustez) likitsak —semena, izerdia, listua...— duen presentzia da. Poesia

goi-zeruekin erlazionatu ohi da maiz, baina Al Bertok poesia ere gorputzarena izan daitekeela erakutsi zuen. Gorputzak, Mendebaldeko tradizio guztian zehar gutxietsia izan den hori —gogamenaren aldean—, beste dimentsio bat hartzen du poemotan: “Gorputzak kondentzen nau bizitzera”. Gizarte makur bateko babesleku da baita ere, beste ale batean azaltzen denez.

Errealismo Berriaren ordezkariatzat jotzen du kritikak Al Berto, “beste” errealitate bat erakusten digulakoan. Nolanahi den, gordintasun horrekin batera topatzen ahal ditugu lirismoa, metafora pindartsuak eta halako jaidura sinbolista bat (“kristalezko burua duen gizona”). Gayen arteko maitasunaren erretratu-gile aparta izan zen orobat, gutxi duena ikustekoa Mendebaldeko maitasun-poema kanonikoekin. Mundu heterosexualak bazterreratzen dituen marikak eta txaperoak dira sarri protagonista, edo hark behartzen duen gayen arteko maitasun diskretua (*Nire lagunaren trikimailua kalean*).

Minbiziak jota hil zen 1997an, oraindik berrogeita hamarretara iritsi gabea zela. Gaur egun, Fernando Pessoaen ondorengo poeta portugaldar antologatuenen artean kokatzen da.

BEÑAT SARASOLA

poema liburu baterako hitzaurrea

ezagutu nuen gizon bat, kristalezko burua zuena.
ikusten genuen —pentsamenduaren itzaleko
argiunetik—

planeten sistema guzia.

ikusten genuen argiaren ikara zainetan eta
hunkiduren lohia behatz muturretan.
denboraren taupada, ezpainen
hezean.

eta insomnia, bere ilargi hautsizko eraztun eta
esperma

lehorrekin. imajinatutako hirien izar hilak.
hitzen hezur tristeak.

buru gardeneko gizonaren esku ernea hesitzen du
gauak.

euria ari du haren inguruan.

atzematen dugu euri larria, beltza, berunkara.

gero, gizonak eskua zabaltzen du, laranja bat ageri
da,

hegan dabil jirabiran.

sutan daude hiriak (irakurritako liburu guzietan
bezala). ametsaren
azken bihotza urratzen duten suak.
baina bere idatzien azal porotsuz jantzi dena
begira dago laranjari, sorgor.

poema sortuko da laranja eroriz gero?
laranja hegalaria, bada edo ez da ero batek gogoan
duen laranja?

eta ero batek jakinen al du laranja bat zer den?
eta laranja erortzen bada? eta poema? eta poema
laranja batekin erorian?

eta poema laranjaren figuran?
eta laranja jaten badut, poema irensten ari naiz?
erotzen?

eta ba ote da laranja hitzik laranjarik gabe?
eta laranja hegatuko al da laranja hitzik gabe?
eta baldin laranja argitzen bada bere muinetik, atal
gordeenetik,

eta inork ahazten badu gauaren erdian, —balioko
ote du

laranjaren dirdirak aspaldi hildako hiriak argitzeko?
eta laranja mugitzen bada espazioan —
pentsamendua baino azkarrago, eta

laranja idatzia baino askozaz
geldiago— sortuko du

ordena edo kaosa?

hiriko harresiz at bizi da kristalezko burua
zuen gizona.

erbesteratu egin zuten.

eta lurren desolazioan, gauaren barnean, bere
amets eta amesgaiztoak zaintzen
ditu. bere keinuak —eta aurpegi bat,
bakardadetik zintzilik.

non bizi da gizona, azazkalez idaztera ausartu zena
bere ariman, sexuan, bihotzean?

eta ariman laranja idatzi bazuen, arima goxoago
bihurtuko da?

eta bihotzean laranja idatzi bazuen, grinak
galaraziko dio hiltzea?

eta sexuan laranja idatzi bazuen, desira
handiagotuko da?

non da idazten duen gizonaren bizitza, laranjaren
bizitza, poemaren bizitza —Bizitza,
besterik gabe—, hemen ote da?

hiriko harresiz at?

nire gorputz barnean? edo nigandik hagitz urrun, —
non bai baitakit beste arrazoi bat
dudala... eta suizidatzen naiz poema
bihurtzeko ahaleaginean, azkenean
libre ibiltzeko.

[hau guzia sentituz
idazten dizut]

hau guzia sentituz idazten dizut
eta argialdi batean izan ninteke ibaia
kaskabiloen dilin zolia argazkiaren zilarrezko
gatzetan
ezkututzen duten ahuntzak
goratu ninteke gaztainondoa bezala sutondoan
xuxurlatutako
ipuinetan
eta ibili dardarti hegaztiekin noraezean
edo lagundu ezpainen listuan ageri den tximeleta
sulfurikoari
imita nezake artzain hura
edo bat egin bere gelditasuna nagi hozkatzen duen
hiriaren ametsarekin

erraturik bizi naiz herrialde urtsu honetan
behar ditut irudiak hezurren erradiografiak
aurpegi desenfokatuak
paper eta ispiluetan inprimatutako gorputzen
gaineko eskuak

begira

ez dut besterik

ezpada mezu hau zikindua gaur granada hazi finez

begira

nolatan horitu zen paperezko bihotza zu maitatzeko
ahantzuran

Amodioa lanbide

jada ez dut zure beharrik
gauaz lagunak ditut animaliak eta izurria
beste galaxien hasieran jasotako hirien
pikorta eria, eta barne-korapiloa

harrien izarrezko musika susmatu nuen, isilean
murgildu nintzen
jabala da oso bihotz taupadaz aurrera doan amodio
hau

ez, jada ez dut nire beharrik
espazio neurtezinen gaixotasuna dut
eta nomaden putzu gordeak

nire basamortuaren ezagutza osora igorik
ez naiz inoren eskueran jadanik, barkaidazu
nire gorputzaren oroimina lantzen badut askotan

[oli, txapero ikusezina]

(zattia)

oli, txapero ikusezina, alfonbran luze etzan eta oihuka hasi da: *ez, ez sartu niri, suitzarra nauk eta suitzarroi ez zigutek ipurtzulotik ematen! tira ba! sartzak poliki, poliki...* eta atzealdera jartzen zuen ipurdia, hortzak karraskatzen zituen esperma egarri den zakur-eme altak bezala, auhen egiten zuen, urtzera zihoan gruyere gazta zirudien: *ez atera, ez atera, a! sartzak berriz, alua...*

[gaztea zinen oraindik]

gaztea zinen oraindik
apenas antzematen zenituen zure hutsak
eta gauaz nola erabiltzen nituen haiek bortxaz

mineral suharren ohe hau
idazten dut esnatzeko eguzkiaren piztia gorputzean
irristatzen dira listuzko hegaztiak ahoaren gaztetxo
garaira
eta itsasondoan bada oraindik leku bazter hura
non oroimenak geldiarazi baitzintuen

aipatzen ditut narrastien odolean utzitako etxeak
ezustean harrapatzen zaitut ezustean harrapatzen
nauzunean

leihotik zelatatzen dut paisaia suntsitua
eta dardaraz dago txorien bihotz tristea

idazten dudanean itsasoa
itsasoa leihotik sartzen da bete-betean
ukitutako aurpegiaren gaua agertzen baitut... adio

[txikitan iruditzen zitzaidan]

(zattia)

txikitan iruditzen zitzaidan ilargia azukrezkoa zela. harrizko bankuan eseri, eta erreparatzen nion zabaldutako arropari lehortzen, haizearekin mugitzen, eta hibisko gorriei dar-dar ilbetearen suan. geldi-geldi egoten nintzen, gaua trinkoagoa, misteriotsuagoa egiteko zain, hari zilarkarak noiz botako ote zituen lorategiaren gainera. iruditzen zitzaidan noizbait ilargia urtu, eta lorategia gozotegi handi-handia bihurtuko zela. orduan, begiak goratzen nituen argizagiz zipriztindutako belztura aldera, eta sentitzen nuen koskortzen ari nintzela. hazten barrendik eta kanpotik. biharamunean jada ez nintzen ibili puxtarrietan.

gauak eta egunak tristeak ziren eta ez zen deus gertatzen, deus ere ez. batzuetan, disimuluan, amodio baten esperoan egotearen itxura egiten nuen, edozein amodio, baina zakurren zaunkak entzuten nituen, ez besterik. glizinen usain

liluragarriaz betetzen zitzaizkidan birikak,
hasperenka, baina ez nuen entzuten hurbil inoren
pausorik. utzi nion esperoan egoteari, eta gaur
badakit gaztetxo garaian oso gutxi maitatu nuela,
eta oso gaizki

[marinel izan nahi zuen munduan ibili]

marinel izan nahi zuen munduan ibili
esku zabalik kostako hegaztien bidean
ahoa nahigabetua bidaiei erreparoen
equipajearen eramanen luke haizeen kanta geldia
eta urek izututako herrialde berantetsia

ispiluaren bestaldera agertu zen
gorputza hezurretaraino aireko bihurtzen denera
gauak bueltatu zion beste gorputz bat arraunean
itzulera sekretu batera abandonatua... gero
urruneko egunen grina gorde zuen lonazko poltsan
eta ispiluaren oroimenezko hondotik
jaio ziren itsasoaren bat-bateko begiak

betazaletan kurkuiloak hazi zitzaizkion alga finak
medusa argitsuak mugitzen ziren mintzoaren
helmenean

eta bularra zen hareatza zabal bat
non elezaharrek eta kronikek ahaztuak zituzten

hezurdura enigmatikoak intsektuak eta metal
baliotsuak

semen-hari batek lotzen zuen gatz-lohiak hartutako
bihotza

gorputza bereizten zen behialako itzaletik

lurraren lo zaharrean geldirik

denaren ahanzturara jaisten zen... itsasoz zebilen

heltzen zien ezpaten sustraiei herdoildutako uren

murmurioan

mastaz masta zihoan insomnia miatuz

su garratzak irekiz itsaso bateko aurpegi lausoan

[batzuetan...
esnatzen nintzen]

batzuetan... esnatzen nintzen
norabaitera ailegatu ginelako

ontzian gelditzen nintzen orduak eta orduak
amuletan bermatua
zelatan hiri eta muino makurtuei
ibaiaren gau lohitsurantz
eta ontziaren kulunkak malenkoniaz blaitzen
ninduen

gaueko brisak zekarzkidan gorputz izerdituen
usainak

suaren inguruko kanta eta dantza arrotzak
kale-zuloetako hotsak tabernako argi lurrundua
lehorreratuko banintz topatuko zintuzket... ziur
sexu-hegada sutsurako
eta hats batean zabalduko genituzke gau atariak
akaso

baina preso gelditzen nintzen ontzian... hipnotizatua
bihotza nahasia

behatz urduriz haztatuz zuraren arrailak
iltze herdoilduak sokak

gorputz iheskorrak ziren moilako argiak
hitz lizunak eskapatzen zitzaizkien ilunantzak
intziri zorrotzak txistuak barreak
nigan pizten zituztenak joateko gogo biziak

Filma zero kalean I.

hezeak hartua txaperoen arropa. gorputz epel metalizatuan irristatzen dira eskuak. lo dago mutila belardian loreekin. hegazti erraldoien plano zehar alferrikako monumentuak estaltzen. *a guy named pirolito* ari da oihuz iparramerikarra, izaturik, ostu egin baitiote kartera. esperma dario kokotsean behera. loirinhok zigarroa pizten du sutan den metxa batekin. barrez ari dira. *a rare old delicate canadian whisky specially matured in oak casks.* edaten dute eta barre egiten. listuzko loreak zabaltzen dira betazal gainean. goxo ukitzen dizkizut begiak. itsasaldien begi nini ondua. behatzak ahoan sartu, eta zain nago haizea noiz geldituko. sutan daude zure beso tatuatuak. eskumuturrak ileekin lotu, eta elkar xurgatzen dugu. elkarri xurgatzen izter bero-beroak. lo gelditzen naiz, aurpegia pirolitoren sexu gainean, atsedenean. loirinhok lepoa milikatzen dit. sexu zut bustiak. batzuek besteei xurgatzen diogu izerdia. aho beretik hartzen

dugu arnasa, titiburuak hortzikatuz. azazkalak min
sekretuak goldatuz. tua belarrietan. itsasoa aditzen
dugu erretiratzen. arrainen eta sexuen murmurioa.
hondoko itsaskiko letaniak. gorputzen xuxurla,
kulunka urruntzen...

[hiri batek mugitu behar du bizitzaren ilunkaran]

hiri batek mugitu behar du bizitzaren ilunkaran
pentsatzen nuen nik... nola ote ziren zoriontsu
emakumeak

itsasertzean makurturik karezko argira
belen oihala konponduz itsasoa zelatatuz
eta zeinen urrun zen ontziraturako amodioa

batzuetan

kaio bat pausatzen zen uretan
beste batzuetan eguzkiak itsutzen zuen
eta odolezko dardo batek zabaltzen zituen gauaren
lihoan
egun guziz geldoak... inor gabeak

eta ez zidaten inoiz esan itsaso haren izenik
esperatu nuen eserita ate ondoan... gutunak idazten
nituen lehen

itsas lerroari begira jarri nintzen kale-buruan
horrela zahartu nintzen... sinetsirik pasan zebilen
gizonen bat

harrituko zela nire bakardadeaz

(perla bat hazi zitzaidan bihotzean urte batzuk
geroago, orain oroitzen naiz. baina
bakarrik nago, bakar-bakarrik, ez dut
nori utzi.)

egun batez

ez nituen jada begiztatzen hiriak ilunabarrean
itsasontziak ez ziren gelditzen atean
makurtzen naiz berriz mende honetako oihalera
berriro hasi naiz brodatzen edo lotan
zalantzan beti zoriona etorriko ote zaidan bisitara

[mahai gainean etzana edo uzkurtuta idazten dut beti]

(zattia)

mahai gainean etzana edo uzkurtua idazten dut beti. isiltasunak eta itzalek inguratzen naute. begira dauzkat sorbalda gainetik, ea zer idazten dudan. aditzen dut bakardade zuloatik heldu zaidan musika. ur musika, odol ertzak, behatz izuak, hautsak hartutako kristalak atabalatzen. zure izena, zuhaitzezko soinu hotz hori, hormetako karea harrotzen. hitzen barnean idazten dut, izuz eta ikaraz. bizitzak harrapatzen du gauaren zorabiozko kiribila. zu izendatzeko, hitz honek baizik ez dit balio: beldurra. testuek aurrera egiten dute etxearen desolazioarekin, taupadaka paper gainean, min dut behatz eta begietan, inoiz ikusi ez ditudan gorputz-organoetan. gaixotasunak higatua bularra. zur arrail batean hazten da egunsentia. zulatzen du, leihotik sartzen da, indarrez hartzen du logelako intimitatearen argiantza. idazteari uzten diot, akitua

nago. gauaren nekaduran ezustean aurkitzen naiz gauza maiteak aipatzen, jartzen ditut betiko lekuetan, adin bat ematen diet, erabilera bat, eta birsortzen dut mundua, goiza etxe gainera abaildu baino lehen. gero, loaren zain gelditzen naiz. betazalak puzten dira, nire adina baino lehenagoko ametsak atzematen ditut. galaxietako amildegi loretsuan irristatzen da gorputza. ordu horietan ene buruaz ez dakit deus, deus ere ez.

Neoizko kaiola

hemen dago munduko gaua gurutzatzen duenaren
grina... hiriko basamortua zelatatuz
metroko bagoi batean... badakizu
galdu nuen gurasoen aztarna nonahi egiten dut lo
baina hori ez dugu ikusten argazkian

badut denbora
eman zizkidaten galtzak doitu behar dira nire
gorputzaren
neurrietara... gauaz
jan nuen bihotzeko bozkario apurra

buru rapatuko txaperoa ikuskari bat baino ez da
agian
gutxi ikusten dugu haren aurpegi mehetik...
milioika aurpegi
bularrera itzulitako aurpegi hartatik bere
baitaratutako soa
eskuen lan enigmatikoan... txanpon bat?
pospolo kaxa bat gauaren ikareria pizteko?

neoizko kaiola hondogabea non mugitzen zaren
izengoitia aldatzen duzu irainik iritsi ez dakizun
baina pobrezia ez da konpontzen gorputza eta
tiritak salduz

hemen jada ez da metrorik igarotzen
ordu honetan zer errebaileko txabolategitan
ezkutatzen zara?

zatoz nirekin... erakutsiko dizut ihesaz baliatzen
eta labanen lanbide zehatza... gero
goizeko lehen metroari esperatuko diogu
joanen gara ikustera lurrazpiko lore dietako
zuhaitzak

[noizbait itzuliko balitz gazte denbora]

noizbait itzuliko balitz gazte denbora
sugeen azalean gurutzatuko nuke memoria guzia
mingaina zure ileetan lo eginen nuke
gauaren soseguan nola bainintz bizitza markatzen
digun

kristal-labana bezain suzko txori zorrotza

azazkalez ebakiko nuke zu galtzeko beldurra... ni
belaontzi ez gauerdi ez agintzari ez ondasunik ez
duena

ezpada huts neurrigabea sakeletan
deus ez duenak eta dena eman zuenak bakarrik
indarrez har baitezake beste gorputz inozoen gaua
bera zauritu gabe amodioaren dirdira laburrean

gero... aldatuko nuke etxea hiria ibaia
gauaz bisitatuko nituzke lo gutxiko lagun katudunak
baina gerta dadila gertatu beharrekoa
ez nago triste ez dut proiekturik ez handinahirik

gordetzen dut lo ezak bota eta haizeek askatutako
piztia

ikuskarrien listua zabaltzen dut gau beranduan
non dabilen gorputzaren malenkonia ilargitarra
noraezean

baina berriro itzuliko balitz gazte denbora nire
barne muinetik

bihotz figurako bere ezkata zainekin
eta ekarriko balit ahora aurpegi ahantziaren itzala
duda gabe hartuko nuke itsasontzi hauskorraren
lema... ni

lemari apala eta nekatua
penaz hiltzen bainaiz zugan ameste hutsaz

Lisboako gaua autoerretratuarekin eta Ian Curtisen itzalarekin

gelatina-neoizko harizpiek hartzen dute katedrala
gaueko filmaren zeluloidean: hegoen arkitektura
haizearen bobedak zaborrezko txoriak
soinua
lohizko betazalak oroimenaren etorbideetan
bidegurutzez
bidegurutze arrastoari jarraitzen dion gizonaren aho
gainean
eta taberna bateko atea aurkituta infernuan
murgiltzen da
amorruez edaten du
hiri-bazterreko belaunaldi baten zink zikinean
bularra kargatua

*Hemen dira gazteak, uztarria sorbalda gainetan
dutenak*

eta mundua suntsi liteke 5 minutura
gorputza ezpaltzen da
beirak igurtziak sorbaldetan bularrean
non zain bat lehertzen den bere ertz distiranta
erakusteko

gero dantzatzen da bihurrikatzen mozkorturik
estaltzen du aurpegi izerditua behatz muturrekin
zipriztintzen ditu odola eta listua azken maskara
eraikiz

erortzen da bere labirinto barnera
pozoia bailitzan gorputzaren bertikaltasuna

arnasestuak menderatzen du
soka ikusezin batek lotzen dio ahotsa
jada ez da mugituko
inoiz ez ikusi arren gorputzeko organo sakonak
badaki haiek ere mututuko direla betiko

izugarria da gaua eta ez du soinurik jadanik
heldu da oinetatik burura herio hedatzen da anker
baina haren zuri kezkarria
urkatuaren erekzioan baino ezin da atzeman

Adiskideak

itzultzean aurkitu nituen
gorputz egarritua zabaldu zutenak
hondartza amaiezinetan

piztia otzanen keinu jabalak zituzten
eta itsasoak argitzen zizkien maskarak
gauaren behatz herratuak zizelatuak

biltzen zituzten eguzkiak ile-tontorretan
geldiro
hezurra bezala moldekatzen aurpegi zurbila
baina bizirik zeuden ukitu nituenean
gero
bakardadea berriro bihurtu zen mindura
eta inork ez zuen gaua eman nahi izan suaren
arnasan

eztia eskaini nien eta entzuten erakutsi
argiaren dardaran zimeldutako lorea
nirekin eraman nituen
poema baten lurrin ergelak
absentzia urruna eta etsia bilakatu arteko lekura

[ez da mugitzen deus ere
paper gainean]

ez da mugitzen deus ere paper gainean
tinta irisatuko inongo begik ez du iragartzen
gorputz honen patua

dirdiraz daude behatzak lurraren humusean
eta nik
axolagabe mingainaren logalearen aurrean
entzuten dut amodioaren oihartzun aspaldi
lurperatua

pausatzen dut burua argian eta dena ahazten
anfora txunditu honen barrenean

jaisten naiz piztien geldotasun horailaz
ahoak hegoaldea bilatzen duen nerbiora
eta behiala jendea bizi zen lekuetara
a adiskide
horren berandu itzuli zinen bidaiatik

itsasoak igo zuen goiz zaharren maila
estali desilusio bareak hautsitako gorputza

horrela ohitu nintzen zu gabe hiltzen
bihotzean boligrafo bat iltzatua nuela

[Aldina Cardinale paseoan dabil barrez]

(zatiak)

Aldina Cardinale paseoan dabil barrez, peluxecko txakurtxo batekin, uhal eta guzi. Haywortheek lasterrari eman dio izuturik, pasatzen direnak ukituz. Melina Mercuriok, marinel ohiak, zabal-zabalik ditu begiak txaperoen bragetei so. hiriko trapaak dira. *Iniziatuak*. asperdura. "*zakil milika leiho milika*" gabiltza, orduaren arabera. gu, *Carolink*. aldakak kulunkatzea ez da erritua jada, mamu-jantzia baizik, instant batean *femme izateko* eta hiltzeko.

diru gutxirekin txaperoak larru faltsuzko txupak eta militar botak daramatzate. balantzaka dabilzkigu inguruan, kezkatzeko moduan. Haietako batek

botatzen du: *marialu zahar honek begiratu dit!* eta,
jakinik irain bat ohera joateko gonbita dela ia beti,
Suzy Turnerrek erantzuten du: *marialu zahar ez. alu
zahar bakarrik, bihotza!* txaperoa gelditu, eta
begira jartzen zaio. barrez hasten dira. Suzyk
oihukatzen dio: *begira moreno, buztana
zurrupatzeko ez dago txeke zuririk!*

[diote grinak ezagutu zuela]

diote grinak ezagutu zuela
baina gaur bizi da gordean betaurreko ilunen azpian
gauaren dardaran esertzen da kontatzen du
sobratu zitzaiona gaztetxo zeneko aurpegitik
arrea zahartzaroaren goragale arinarengatik

ezagutzen du esna dagoenaren bakardadea
etzanik loaren ondoan ia beti
atzematen du adinaren jirabira leuna
goratzen da ispilu aldera
zeinek itzultzen baitio izuaren tamainako irribarrea

diote bizi dela ametsaren gardenean
pixkana zahartu zen itsasbazterrean
inongo samurtasunak inongo alaitasunak
inongo lanbide kantarik
konbentzitu ez duela bizien artean iraun dezan

[loa joan zitzaion adinean aurrera egin ahala]

loa joan zitzaion adinean aurrera egin ahala
amets gutxi du edo batere ez
inguruan gertatzen denetik ez daki apenas deus
mugitzen da eta aldatzen
ikusmenetik haratago

gauaz baino ez dago itsasorik
zaunka egiten dio oldarkoi leihoan
merkuriozko zaldiko baten antzera igarotzen da
haizeen goi-goian itsasoa da begiztatze bat
datorren gauarena non uretan hartuko dugun
arnasa
eta amiltzen diren gorputz hutsak

lagunak aldendu ziren mantenu hobe bila
bera bakarrik gelditu zen hemen eseria
esku baten zama kopetan duela begira dago
ilunabarreko oroiminezko zaldikoari

lerroz lerro ezabatzen dira hitzak liburuetatik
jaiotzen dira karduak begietan sortzen galgo hauek
urruneko beste poema batetik etorri berriak
eroarazten dute
baina hura jada ez dago lo ez da kexatzen
hondamendi handiagorik ez du aurreikusten:
egunkaria
idaztea eta zahartzea

[inor gabeko egunak]

inor gabeko egunak
agudo idatzitako mezu ñimiñoak
behatz artean zimurtuak:

*ederra zen atxaparra
gora zihoanean etxe ahaztuaren gauean*

harri zehatzak hautsaldi lurrinduak
ipurtargiak lo buztinaren malguan
intsektu hezur hortzez estalitako hareak
eta gau nekatuen abiapuntuko ibaia

loratze argitsuak ilargi mikatzak erroizten
lurrezko artesiak kostako hiriak txoriak
bide hauskorrak hegada betean aurkituak
ametsezko argialdi izugarrian

gelditzen zaizkit kristalezko igarobideak
non laztandu baititzaket gorpuzki ikaztuak
irekitzen dut aurpegiaren sarbideko atea
patioko eskailera goroldiotsuan behera noa
zeharkatzen dut harrizko lorea
han bizi izan naiz amildu aurreko denbora guzian

Hiesa

izena izanik telefonoz deitzen digutenak
noizbait mehetzen dira —joaten dira
abandonuaren menturan uzten gaituzte
alferrikako oinaze mutu eta irensole baten
barnean

amodioa artxibatzen dugu denboraren leizean
eta nahigabearen azal beltzetik haratago
bizirik dugu sumatzen
hareatzako bidazti sutsua —gaueko bioleta
usaina darion bidaiaria

orduan pizten dugu garra behatzetan
esnatzen gara dardaraz, nahasi —esku errea
bihotz ondoan

eta besterik ez da mugitzen segundoak
zentrifugatzean —dena falta zaigu

ez gaitu kontsolatzen ez bizitzak ez haren hondarrek
absentziak distiratzten du goiz argian
eta aurpegia loak zikindua artean aditzen dugu
gorputzaren xuxurla penaz betetzen

horrela gordetzen ditugu hodei laburrak keinuak
neguak atsedena logalea
haizea
herrestan eramaten urrutira
maite genituelarik
berriz deitu ez zutenen irudi lausoak

[piztiak ailegatu behar du zentzumenen eroaldian]

piztiak ailegatu behar du zentzumenen eroaldian
eta zulatu absentziaren itsasaldi sulfurikoak
ailegatu behar du
eta miazkatu insomnioaren lizun inozoa
elikatu gorputzen itzal meheekin

susmatzen ditut belaontzi tristeak eskuan lokartuak
non isuri baikenuen esperma urduria
piztiak
ailegatu behar du xuxurlatuz urre ukigabezko zure
izena
erakutsiko dit ekaitzaren ilaje dirdaitsua
eta bilduko du bere sustraizko hortzaldiarekin
gure gordelekuaren mintzo garbia

piztiak ailegatu behar du
eta joanen gara hezur argituen bidean zehar
egunsentiaren bila itsasoko lanbro urrunean

[gaur gauza xumeen eguna da]

gaur gauza xumeen eguna da
(*ene! hau miseria! lurreko
gaina eta bikaina ez dira berriz agertuko!*)
gauza xumeak adibidez zurekin jatetxera joan
irakurri horoskopoa eta eskandalu txikiak
ikusi aldizkari pornografikoak eta
egon luzaz bainera barnean
zeregin gutxi dago herrian
eguraldiaz mintzatuko gara begiak kikaretan preso
hitz gurutzatuak sortuko ditugu harean... behatz
jolasak eta murmurioak mahaipean
kafea hartuko dugu
irribarre eginen diegu jendeari eta gauzei
ondoan ibiliko gara elkarri sorbaldak ukituz
(hemen bazina!)
isilean bistatuko genuke ibai ahoa
eta eguzki asaldatua jauzika haur oinutsen eskuetan
gaur

[gorputzeko edo etxeko espazio urrian]

gorputzeko edo etxeko espazio urrian
saiatzen zara betikotzen jostailuen forma
hauts argizko soka misterioitsu batek piztua

badakizu faltsua dela irudien garaia
keinu amaigabeena zeinek gogora dakarkizuen
ametsen hazi nahasian galdutako aurpegia

eta ilunabarrean hartzen duzu irla edo sumendi
izena

azalaren gainean bizitzen uzten diozu suzko haur
bati

eta gaueko laba hotzean erakusten diozu gorputzari
hitzen egonarrria amodioa abandonua
isiltasuna

eta malenkoniaren arte gaitza

[jartzazu ahoa lurraren bular arrailduan]

jartzazu ahoa lurraren bular arrailduan
hartzazu hilik dagoenaren isila
itzuli inoiz egon ez zaren lekura
berrosatu zugan jostailuen puska txikiak
berregin gorputz iheslea gela ilunean

paperezko izate marmartitik edan
hitzzen herstura pozoitsua hegazti galduen
odola bidaiaren bihotz gorrean

gorputzaren atari aratzera ailegaturik
eman su haurtzaroko gau ankerrari adio esan
gaurko egun tristeetara itzultzen zarenean
ahaztua izanen baituzu aurpegiko poz laburra eta
argi bat itzaliko baita emeki-emeki
esku zahartuaren barnean

Jean, Suqueteko arrantzalea

Agian, omendu (?) daiteke hiri batzuk errez, ager dadin aurpegi aratz bat edo jainkoaren sexu zoragarria eta lohitsuak. Baina ez dut uste Genet bezalako gizon batek, bizia eta mundua ihes ezkutuenean gurutzatu zituenak, nahiko lukeenik surik, ez aurpegirik, ezta jainkorik ere, jakina denez beti berandu ailegatzen baita bazter guzietara. Heriotza ez zait inoiz gauza gloriatsua iruditu, berdin santutasuna itsasten zaionean larruazalari eta bihotzari, bete beharreko patu bat bezala, izurri bat bezala. Eta gutxik jakin izan dute beren infernuarekin bizitzen.

Nire isiltasunaren urre guzia eskatzen dit diedan miresmenak bai obrari bai gizonari, zeinak, apalki, heriotzara kondenatua egonik, exekuzioaren zain denaren toki lanbrotsua ezagutu baitzuen.

À bientôt Jean, *où même le jour il fait nuit.*

1986ko apirilaren 16an idatzia, Jean Geneten heriotzaren kariaz, *Diário de Lisboa* eskatuta.

[amodiozko gauak laburrak eta beldurgarriak izan ziren]

amodiozko gauak laburrak eta beldurgarriak izan
ziren

eta haien muinetik itzultzeak zirtziltzen zion
gorputza

esku dardartiek oraindik hartua

biluzik zegoen

ez ur ez argi erakusteko nolakoa zen
edo nola eraiki perfekzioa

egunak joan ziren ahitzen berunkarak
bizia luzatzeko
beste adiskideren baten bila etengabe

eta behin esnatu zen
oinez ibili poliki adinaren gainean
ahal bezain urruti
bihotza zaurituko ez zion
beste hartzaro posible baten sorlekura

[hiriaren erdian oihu bat]

(zatia)

hiriaren erdian oihu bat. Hartan hilen naiz, idatziz bizitzak utzitakoa. Eta badakit idatzitako hitz bakoitza dardo pozoitu bat dela, tumulu baten neurrikoa, heriobideko seinaleak direla zure keinu guziak (...). Baina gaur, urruti oraindik oihu hartatik, itsasbazterrean sentitzen naiz. Gogoeta egiten dut nire itzuleraz. Betiko daukat galdu dudan guzia. Eta erle bat pausatzen da lirioaren urdinean eta izotz ondoko karduan. (...) Edaten dut, erretzen, erne nago, nigana bildua —hemen eseria, leiho itxiaren ondoan. Lehen aldiz aditzen dizut *maite zaitut* xuxurlatzen, zeruertzean lekutzen den argi lausoan, gorputza bukatzen denean. Biltzen dut ezta, gordetzen poza, eta ahapeka diotsut: *itzali izarrak, zatoz nirekin lotara, ihesi doan munduko gautegiaren dirdaian.*

Gaua sortu zen eguna Carlos Nogueiraren eskutik

nekaturik zeuden gizon ur animalia eta lurrak
argiaz eta gaurik ez izateaz
goratu nituen eskuak
lurra birarazi eguzkia ezkuta zedin
azken distiretan bildu nituen behatzak
ehundu nuen hari dirdaitsuekin
argizagien mintzaira misterioitsua

gero
ganga ilunean abiatu nintzen
zabaldu nuen tapiz miresgarria
han behean inork biderik ez galtzeko
eta hartan edonork asmatzeko gizakien patu
dolorezkoa

horrela jendetzak hartu zuen gaua nola lurra
gizonek egin dezakete amets gaizki ulertzen
dutenarekin
eta beldurak izar hura izendatu zuenean
bukatutzat eman nuen lana

hariak moztu nituen nire zati bat moztu banu bezala
beste hemisferio batera joan nintzen eguna
loaraztera
eraikitzen piramidea laukia zirkulua lerro zuzena
munduaren koloreak
eta beste kreatura gori batzuei bizia ematera

Cesarinyren eta Geneten potret birakaria Lisboan

ilunabarrean mario

behor zuria dabilenean principe real parkean
marika kaxkarinek bisitatzen gaituzte
ahoak zabaltzen dituzte penduluen moduan
erakusteko

sugegorri esperma-hondarrak mingain azpietan eta
eria luzaturik saldukeria aurpegiratzen digute

badakigu bizirik gaudela edo kondenaturik gorputz
honetara

barrearen behin-behineko ziega non marikek eta
txaperoek

zorrotz begiratzen dioten elkarri eta
horrela gelditzen gara
denborarik gabe

ilunean desira urtzen zain

goizalbaren kale-garbitzaile batek noiz iragarriko
urkamendiaren funtzionamendua azken erekziorako

kanpoan mario
oroimenetik urrun durundi dagi lisboak ahaztuz
nork galdu zuen ordu bietako itsasontzia edo
oinezko hura
arginabarrean botako ote duten edo ajudako tranbia
hartu ez duen soldaduak izorratzen duen
edo laguntzen edo ez duen laguntzen eta lisboa
eskailerape
batean hau bada
hain tristea mario tajo gainean sirena-hots bat

Nire lagunaren trikimailua kalean

ustekabea aurkitu zintudan kantoietan
bermatua

begirada hutsa jendetza iragazten, gelditu nintzen,
irribarre egin nizun, etorri zinen, oinez joan ginen
etxera elkarri sorbaldak ukituz

eskatu zenidan dutxa bat, etzan nintzen,
entzun nuen ura irristatzen zure gorputz
hiriz eta mutilez zikinduan,

nire izan ez ziren egun eta gau eta egunez
zikinduan,

etzanda egon nintzen zain, beste zigarro bat,
eta oraindik zain nago,

maite ditut barre egiten duten gorputzak, freskoak,
irekitzen zaizkie behatzen gaueko samurtasunari eta
ahoaren

desira hezeari, beti ibili eta aurkitzen duen horri

goitik behera ukitzen zaitut
ezagutzen zaitut nire dudan auhenean,
ilunpean

kontatu zenidan tarzanen abentura sinetsezin bat,
aditu nizun
gela isilean diz-diz zegiten nik bakarrik ikusten
nituen hegaztiek

irribarre egin nuen bururatzean zer hondar
aurkituko nituen

goizean lurrean
esperma orbanak, zapatila zulatuak, galtza zikin-
zikinak,

kazadora pegatinaz betea, izerdiak gogortutako
galtzerdiak,

galtzontzillo hautsiak, kaka-zirriztekin

eta zure eskuak, oroitzen naiz,

batez ere zure esku handi-handiak nire bular
ganean,

zure gorputz biluzia, ohe ertzean, soseguan lo

Ezpal-kolpeak / Pedro Casqueiro

haizearen soinu asfaltatutik datoz
jakizu zer errebaletatik zeharkatzen dituzten
zubi eta ubideak ile distiratsuko
neska biluziak nikelezko buru-hezurra dutenak
jertse ilun eta zarpailei itsatsiak

motorrezko gauaren herensuge urdinak
gelditzen dira gasolindegietan
lehenago iritsiak baitira hara asperdura eta goiza
txapero adingabe baten begiratu tristean

edaten erretzen jarraitzen dute gero
beleen orro batean egunaren tunelean zehar
murgiltzen dira abailan atzean utzirik
suaren eta kromatuen txikizioak galtzen dira
topatutako lehen hirian zorrozten dituzte
nerbioak sexuarekin flipper baten kontra
eta
badakite ez direla inoiz itzuliko
gurasoen etxeko erosotasun miserablara

[bat-batean, hil-kutxa
dardaratzen da]

(zattia)

bat-batean, hil-kutxa dardaratzen da. goratzen itzal
bat eta sonanbulu dabil.

gelatik ateratzen da horman marraztutako atetik.
erabatekoa da isiltasuna.

hor dago oinazea, itsas-tortikak erretako ahoarena.
minak gainditzen zintuen. kristal bat mugitzen da
urruneko hirien sufrean.

sumatzen zenuen zure eskua ate marraztua
irekitzen.

beti bizi izan zara hirien erorkin, azalaren hondakin,
lur emankorreko kordel fin,
misterioetan...

beldur izateko behar gorria sumatzen zenuen,
arnasa hartzen, oihartzunek, suek
hartutako etxean. ondoko portuko
aire jasangaitza hartzen zenuen.

hemen gaude, gela honetan, non iluna betiereko
argia den. hemendik kanpora ez
duzu inoiz itsasorik ikusi.

baina hau guzia beste noizbait gertatu zen, beste
nonbait. eta zure ahoak hegal gazien
kutsua uzten zuen nirean...

hodei laburrak. ilunabarra, ametsaren belar
freskoan etzandako gorputz gainean.
hondartzako harri gorrixketan
zabaltzen zenuen grinaren
gordelekua.

nekatu nintzen zu amesteaz. nekatu nintzen odolaz
eta euriaz, bide gaizto horien
oroipenaz.

naizen tokitik apenas ez den joan oraindik nire zati
bat.

arima bermatzen dut itsasontziko gilan. uzten dut
itsasaldien eta mintzoaren kulunkak
eraman nazan.

gauak nabigatzen du azalean.

eta gordetzen zenuen aurpegia zapi zuri batean eta
eskuei zorrotz begiratzen zenienean
jainko baten beldur nintzen.

tamarindoen itzalean eserita geunden. ahots bat
aditzen genuen

eta amesten ez.

gutako inork ez zekien ametsak edo heriotzak
eramanen ote gintuen zorionaren
porturen batera.

ez naiz oroitzen hurrena zer gertatu zen.

gauak isiltasun irristakorrari uzten zion bere baitan
barneratzen.

gogora etorri zitzaidan ailegatu zinen hegoaldeko
portu handia, zoriontsu izan zinela
zenioen lekua.

erortzen hasi ziren orduak elkar-gainka, berdinak,
isilak, malenkoniatsuak.

berriz alde eginen dudala esaten dizudanean,
galdetzen didazu: *zergatik hil?*

elkarren kontrako norabideetan gabiltza. noraezean
gabiltza

hirian.

sukarrak suntsitzen gaitu.

badira Indiak deskubritzeko, gure hondamendien
gauaren

sekretuan.

argiantz eta zalantzen eremuan gabilta —non
mintzoak ez baitu ñir-ñir egiten eta
hitzak suhautsezkoak diren.

zure esku gainean gorputz baten, edo itsasontzi
baten itzala. bidaia luzeen isiltasuna.
eta isiltasunaren erdian ahotsaren
ideia bat, oroimenari itsatsitako
ilunpea.

orduan ohartu nintzen zure heriotzatik haratago bizi
nintzela, ito beharrean. baina
iragana ez da ametsa baizen. txantxa
bat, klepsidra matxuratuekin eta odol
pittin batekin.

ez du merezi triste egotea.

historia guziak, heriotza guziak itzaltzen dira.

itsasontzi batek kliska egiten du logelako
errezeletan.

beltza da zeruertza. eguneko argia bukatu da bat-
batean.

argitsu eta ito, eskuez ukitzen zaitut, egiazkoak eta errealak ez diren eskuak —bizi garen tokian baitago denbora guzia, agian. nahiz eta jakin toki horretan ez dela inoiz denborarik izan.

Andy Warholen gezurrezko erretratua

ez dut pentsatzen
telefonozko elkarrizketak transkribatzen ditut edo
new yorkeko gauarekin mintzo naiz
edo ez naiz mintzo eta besteen ahotsa grabatzen dut
filmatzen
heriotza obsesiboki
edo ez dut filmatzen eta biderkatzen ditut aulki
elektrikoak
berotzen naiz
besteen munduaren erdigunea naiz eta
ez naiz existitzen
edo bizitzak sexua gurutzatzen dit
eta hil papera edo diz-diz dagit
diamanteak bezala

aztarnak

garai batean

ilargia bazela sinesten genuenean

poemak idatz genitzakeen eta

ahoz aho pozoitzen genuen elkar listu debekatuekin

ehotako beiraz —garai batean

egunak urarekin zihoazen eta garbitzen zituzten

maskara zikinen likenak

gaur

ezin da hitzik idatzi

silabek ez dute irauten harrien idorrean

edo ez dira hedatzen gorputz zabalduan

zinabrioaren eta alkoholaren kuartoan —gaua

pasatzen da

ahal den lekuan —hiztegi labur eta

obsesibo batean —tximistak hizkuntza ezereztu

eta deus gehiago ezin aditu arte

hala ere
jarraitzen dugu keinuak errepikatzen eta edaten
izerdiaren sosegua —nekosten sukarrean
gora goaz —ukitu arte izarren
zuhaixka mistikoa
eta
argiaren misterioak gure begiak zigortu arte
euforia erauntsi batean

infernua

garrasiaren hegal leunean islatzen da denboraren
su jangarria —olagarro bihurtutako
eskuak astintzen du belar ihartua goizaren
odolean

hona hemen zauri sendaezinen azti mundua
infernua
lo zaudela ere auhen egiten duzu abandonatua
euriaren arnasestura kristalean eta haize dantzarira
pertsianan

inoiz ez duzu jakinen nolatan bilakatu zinen
airezko pantera —debekatuko dizut paseatzea
sentipen eta altzarien gainean

eta mendeku hartzea
piztien liluratzaile abilaz

egunkarirako oharrak

jainkoa agudo ordeztu behar da poema, silaba
txistukari,
lanpara piztu, gorputz ukigarri, bizi eta garbiekin.

kale huts guzien samina.

gai naiz ibiltzeko isiltasun honen mingain
zorrotzean.

eta bere sinpletasunean, bere argian, bere
amildegian.

gai naiz huts hau akabatzeko, nire burua
akabatzeko.

kale huts guzien samina.

baina maite dut gaua eta errautsezko barrea. maite
dut basamortua

eta bizitzaren patua. maite ditut engainuak, zortea
eta ezusteko inkontruak.

gaua igarotzen dut gehienetan ene bihotzaren alde
sakratuan,

edo beldurrak beste gorputz baten prekarietatea
duen lekuan.

kale huts guzien samina.

ongi ba, mario —jakina da paradisia alfeiteko
fragatan ailegatzen dela lisboara. aski da
jartzea ilargi urduri bat masta gainean eta
belaontzia martxan.

eta esan behar da: *hemendik ez da inor aterako
erregistrorik gabe.*

kale huts guzien samina.

odolez zikinduak begiak. erruz ari du euria. filma
bukatu zen.

ez dugu inoiz elkar ezagutuko.

kale huts guzien samina.

poemak lo daude adinaren ezinegonean. distiratzten
dute, egunez egun

laburragoa den nahasmenduan. eta, zenbaitetan,
aditzen ditut gaueko trantzean. irudiek

suntsitzen naute, atzamarkak egiten
dizkidate metafora maltzurrek, lohiek... eta
ez dut deus idazten.

idazkuntzarako itzulera bukatu zen. bizitza dena
izorratua —eta arima zulatua itsaso honen
tamainako agoniak.

kale huts guzien samina

lisboa (2)

antsiatu zenuen lurralde isiltsu bat
euri gazikoa —biderik eta ametsik gabea

izan zenuen lurralde ospel bat
non errealitateak eromena irentsi eta
hustu egin zen —gorputzaren bakardadearen aurka
adiaka ari den gauezko lurralde hau —galdetzen
duzu

nolako sua egiten dute tu karduek?
itsasoa sartuko da zure absentzian? eta
analgesikoen
zurtoin beltza nire gainean... hareazko zer hiri
azalduko
da alez ale eraikia?
zenbat lisboa daude lurperaturik? edo urperaturik?

haizeak dakarzkizu tropikoen urrina
kaleetako tamarindo loratu eta zelaietako
udaberriko belar onduena —haizeak
babesten zaitu —izozte eta zalantzen
hego minetan zaramatza

gauza harrigarriak esanen dituzu —arimak
arrosadien zumardi bat
eta lanbroari darion
heriotzaren usain gozoa

[horra hondakinak]

(zattia)

horra hondakinak:

xaboi zattia biltzeko papera

eguzkitarako betaurrekoak

bi mukizapi, espermaz zikinduak

ehun ezkutuko billetea, helbide bat idatzia duena

puxtarria

tinta amaiezineko bi boligrafo

bizarra egiteko bost xafla

liburu-orri bat, hautsia

labana

postala

deia

deiarekin dator dena
gaurik gau esan genuena eta
inoiz esanen ez duguna —bidaia
kotoi adar bat iletik zintzilik dugula eta
azalean hegazti ildo baten sentipen freskoa

deiarekin dator dena —otsoak
ipotxak aztiak putak marikak eta
nahigabeen erredentzioa —bizarra mozten ari zarela

bakarrean bost hamarkada egin zituen gizasemea
ikusten duzu ispiluan eta
orain begira daukazu —kexaka eztulaz
hortz minaz eta oharkabeen egindako ebakiaz
sudurzulo ondoan bizar xaflaz

ez dakit nor den —hala ere badakit itoko dela
azalera argian handik urruntzean eta
atea zabaltzean etxetik marmarka ateratzeko: deiarekin
dator dena
gauaren deiaren barnean

[karezko euri eslaian zehar buruak]

karezko euri eslaian zehar buruak
zarratatzen du gelako ilunpea —nodulu argitsua
urezko mahai gainean —ikuskaria ezabatzen da

eta eguna dator porotsua hezea
barrendik piztutako harri txikiz betea
lo txirikordaz —karezko lanbroa ebakiz
mintzoa

isurtzen da tripodean zintzilik dauden flaskoetatik
tantaz tanta
hodi fin eta gardenetatik suzko
likidoa

eta patuak zirriborro bat dirudi
haurtzaroko amesgaizto batean egina —hazten zara
arrasto mordoilo hartan eta
leihotik ikusten duzu zedroa sutan —gero
indarrez ixten dituzu begiak
akitua zaude —gorrotatzen hasten zara
besteentzat urrikalgarri izatea

[egun batean goiz garbiak aztoratzen du]

egun batean goiz garbiak aztoratzen du
ahoko distira bustia —zabaltzen da
odolaren iturri gaiztoa orbainduz

mintzoa goratzen da argi —minik gabe
zuhaitz enborra berdatzen eta
txorien hegadaren misterioa igotzen
gorputzaren zain bizira —humusa

izerdia sua urtzen dira geldi —suzko
hautsaldi dardartia
uren oldearen hondoan jaiotako zuhaitz
hegalaria —berriz
arnasa

[ikusten ditut argazkiak]

(zatia)

ikusten ditut argazkiak.

pena hartzen dut ikustean, haietaz mintzo
natzaizunean.

beti susmatu dut egun horretan abandonatu
ninduzula...

badakit gutxitan izan gaitezkeela nahi duguna.

argiantz kulunkariak beztitzen dute itotakoa.

ez, agian ez ginen horrelakoak izanen. loaldi sakon
batek

nahasten gaitu. agian beste sentipen, beste emozio
batzuk biziko genituen, oroitu ezin
dugun beste bizi batean.

ezberdin izanen zen beste nonbait?

ez dakit zoriontsu izan ote ginen. ez dakit nolakoak
ziren alorrak eta itsasoak. ez dakit
ongi nola aditzen nuen zure
ahotsaren xuxurla: bilatzen zaitut...

eta pausoro zure keinuen ideiak isurtzen ziren
euriarekin

[oihalak zabalik animalia hilen gainean]

oihalak zabalik animalia hilen gainean
lainoa

ezkutatuz paisaia non dabilen gorputza
atzo goiz-hastean ahaztu zenuena

eseri ohean —ukitu animaliak
askatu eta ikusiko duzu nola paisaiak
grabatu zituen itzalak begietan —itxi begiak
dena erre dadin argizagi baten indar berarekin

eman eskuak eta bihotza
ilunabarreko piztiei —termometroak
39º eta erdi markatu eta betazaletan ilunpeko
putzuak irekitakoan... baina

oraingo
egon lasai —edan esne beroa
tapatu mantekin —egizu lo
segaren ahoa lepainguruan duzula

[gau purpuran etzana]

gau purpuran etzana
materia argitsuz egindako gizona

bularreko kaiola zaintsutik ihes egin dio
hortzetan ekarritako piztiak
egunen joanak —udaberriko eromena
non emakumeak aieneka ari diren eta
bakarkakoak egiten dituzten haurren hezurrekin

gero
goizeko aluminioak urratzen du gauaren azala
ikusten dugu

gelan itxia gizon sukarduna —goratzen da
bere oroimenetik eta pizten du gertakarien
sua —aditzen da

txori bat nerbioak mokokatzen eta airea
odol putzuz da betetzen

gizonak altxatzen du azkenean burua min
barrenetik —miatzen du aho ondoan
dardaratzen eta itzaltzen den mundua

Van Goghek Theori eginiko azken gutuna

ez naiz inoiz kezkatu pintatzeaz
ikusten eta behatzen dudana zehatz-mehatz
barnekoa adierazteko da kolorea theo: horia
lurra urdina belea lila eguzkia zuria sagarrondoak
gorrimina arles
kolore beroak diz-diz gau sakonean murgildutako
izarren misterioaren azpian non hartzen baitut
kafea asentsio-belarra tabakoa ikuskariak eta
gero ordaintzekotan okin onberak eman didan
ogi puska bat theo

jotzen du ipar beltzak jotzen ez duenean ere
sagarrondoak lore dirade
aranondo adaburuetan ipar beltza da arrosa-kolore
sutan dago sutan jarraitu zuen hiltzen saiatu
nintzenean
nire paleta aratz bihurtzen ikusi zuena
baina nire buruari kolpe bat eman nion
theo

belarri bat moztu nuen eta orain ipar beltzak jotzen
du
nire gorputzaren alde batetik sagarrondoak lore
dirade
eta sutan dago arles theo belarri moztuaren azpian
azkenik theo
auversen itzuli nuen aurpegia eguzki aldera
pistola bularrera destatuz sentitu nuen gorputza
abiapuntura sutan alderatzen zotala bezala
ekilore suzkoaren mugimendu batean

[berma zaitez horman]

berma zaitez horman
utz oinazearen jarioari zirkulatzen
irudi sukartsuen barnean —harrapatu
airezko soken sorta —joan
hegazi etereoan bidetik —deizaiezu
irudimenezko lorategira eta edaten eman
errauts berozko ikuskariak

deitu gauari eta bota haren barnean
itsasoetako arranoa —odolaren lore iluna
bihurtu itsasontzi hautsiz
oroimenik gabeko negu honen lanbroa

utz gorputzari bidaiatzen etsimenduan
kantu-iturri agorrezin horretan —erremedioek
sendatzen ez duten malenkonia

berma zaitez horman
aditu ustekabeko talentuaren mututasuna

[mozkortzen zinen]

mozkortzen zinen

uda hartako joanean erruz edaten zenuen ardoa
gorputz sutsuen zorabioan gutxi zenekien
jelosiaz eta azpikeriaz

konfiantza handiegia zenuen zeuregan segaila zinen
ez zenuen armarik salerosi Hararren
bularra estutua zeneukan eta ibilera nekeza
ez zinen inoiz gauaz izan Alexandriako zerupean

entzun

gaurgero abandonatzen zaitut betiko
poema idazlearen isilean
Portugalen

hogeita hamazazpi urte dituzu Rimbaudek bezala
akaso bada garaia hiltzen hasteko

Mezua

entzudazu
izan dezazula eguna garbia
eta argiaren izkinetan biltzeko bidea
zure heriotzarako jaki nahikoa

zoaz inork ez ezagutu ez hitz eginen
ez dizun lekura —zoaz krater itzalien
eremu horretatik —zoaz gaua bezain
ur-ate zabaletik

utz estal zaitzan kasiopeen arbolak
eta oxidoak herdoildu olo eroak
hegadaren zorabioan aireratzen —utz
udazkenari txori eta erleak ekartzen
gaua kutunki igaro dezaten
zure bihotz laburrean —entzudazu

izan dezazula eguna garbia
eta eraikizazu azalaz haraindi gatz-arkua
betiereko pausalekua —itsasoa, nondik ihes
joanen den gaur gaueko eter-bisitaria

ez ahaztu suz hauts-desirez
betetako itsasontzia —ez ahaztu urrea
bolia —hirurogei pilula hilgarriak
gosarian

[eskuek sumatzen dute suaren arintasun gorria]

eskuek sumatzen dute suaren arintasun gorria
errepikatzen dituzte lore-korolen gisako keinuak
txori zaurituaren hegadak goizargiaren murmurioan
edo horrela gelditzen dira urdin
itsasontzi bat bezala begiradaren mugetan
finkatutako
argi honen adin zaharrak kiskaliak

goratzen dituzu berriro esku nekatu eta ikasiak
ukitzen duzu irrikarik gabeko aspaldiko hutsa eta
gauen mingots hezea eta hainbesteko jakineza
hainbeste urre amestu azalean hainbesteko ilunpea
ia deus ere ez

[tindatu behatzen eta sexuaren punta]

tindatu behatzen eta sexuaren punta
gorputzen tinta amaigabea... zu desiratu
begiak itxirik lorategi publiko batean eserita

noizik behin

azpimarratu eztiarekin nahasitako zenbait hitz
aditu erne lurraren taupada suharra... entzun
kakalardoei gorotz berdeak biltzen
etxe hutsen murmurio antzemanezinen ondoan

irakurri agudo egunkaria edo ahaztutako eskutitz bat
idatzi postal bat:

*ongi ailegatu naiz. Egun hauetakoren batean
idatziko dizut*

bildu hosto ihar finak zurtoin mehe hautsiak
goroldio puskak bilduma bitxi baterako
auhen ahulak zomorroek gordeak
parkean... oroitzen zaituen zakur deslai bati segitu

[eskueran dago errebolberra]

(zattia)

eskueran dago errebolberra
idazten ikasi gabeko esku ondoan, erretzen du
behatzen ukitu hutsarekin
beste eskua, eskuina, ahulduxe zen ikasi zuenean
lanbide isila
nik diot: gaur igandea behar du
eta ezker eskuak kanpaia jotzen du eskuinak
abileziaz
idazten duen bitartean, etengabe,
geroago, idatzi nuen nik,
eskuek lanbidea truka lezakete
errebolberra tindatuko litzateke amaigabeko tintaz,
eta
paperean bala baten ildo lazgarria agertuko

[Maite dut gaua]

Maite dut gaua. Maite ditut hirietako gaueko basamortuak. Berrero hasi naiz poemak idazten: bukatu da barne lutoa. Sortu nuen unibertsoak bere horretan jarraitzen du. Gai naiz oinez ibiltzeko hizkuntzan, haren xumetasun eta argitasunean, haren amildegian.

Gai naiz memoria berregiteko. Mundua lehengoratzen dut nire erraietan hazten utzi nuen hutsean. Gai naiz huts horrekin bukatzeko, nire buruarekin bukatzeko. Maite dut gaua eta hartan jirabiran dabiltzan errautsak. Maite ditut hirietako gaueko basamortuak —hitzek berriz liluratu naute.

Murgiltzen naiz hizkuntza argian, bizitzaren amaieran —gaua igarotzen dut berriz nire gorputzaren isiltasun zaharrean.

Visitazione

lohitu ziren hezurak eta
erosi nuen albatros bat disekatua
zuri arima bijilatzeke —ilunabarrean

behatz sutuekin lurperatzen ditut
egunak —hauts distirant hori
zedroetatik jaulki eta erortzen dena
maskararen eta aurpegiaren arteko arrailean

su gaizto bat isurtzen da orduan uretatik
azalak hartzen du zapore igeltsu eta lizunezkoa
hiri honek ezagutzen ez duen
heriorik ez grinarik ez dago —baina gorputzak

ez du dena gogoan —gauak sutan
esnatzen du bihotza —hegal itzaltsuak dituen
planktonezko eta mamuzko jauregi hau

gero

agian adituko da munduaren kanta

ia garbia —errautsak non murgiltzen naizen

denbora irekitzera eta amodioaren argiak

ilundutako zure eskuak bisitatzera

idaztea

idaztea dut isilezko egonleku lehena
gorputzetik oldartzen da hitzen atzean mugituz
bigarrena
itsasoak ukitu gabeko hondartza zabal hutsak
basamortua non hatzek xuxurlatzen duten azken
krimena
zuri idaztea etengabe... hondarra hondarraren
gainean
odoletan eraikiz ezerezko horma goi-goiak

gorde zenituen gauzekiko grina
azal-oroimena ez dakit zer hondamendi botaz
lohi mihia

zikuta haziak barreiatzen genituen ametsen
ganduan
izarren aieneak bezala iristen ziren goizak
eta itsasertzean nenbilen zure esperma arrastoaren
bila

itsas-lohizko beste gorputz zenbaitek zeharkatzen
dute
ilunabarreko listu eskasean jasotako egonlekuko
isiltasuna

AUTOBIOGRAFIA

LABURTUA:

1. EZ DUT AUTORIK
2. EZ DUT TELEBISTARIK
3. EZ DUT ORDENAGAILURIK
4. EZ DUT SAKELAKORIK, EZ KREDITU TXARTELIK
5. GERO ETA GUTXIAGO IDAZTEN DUT MAKINAZ
ETA GORROTATZEN DUT "PIMBA"
MUSIKA
6. Hotel batean bizitzea gustatuko litzaidake

hilarria

argiune irisatze argi bihurtzen da
ilunpe etengabea
idatziz eta munduari ilunetik begiratzuz
bizi denaren bihotzari su ematen diona
apalik
patu gisa ezarri zizuten lanbidea
bizitzea eta hiltzea
infernuaren simulakro horretan

jainko maitea!
erretzeko modurik hoberena aukeratu behar nuen
nitaz ez gelditu arte deus ezpada hezur bat
eta dozena-erdi silaba zikin
kiskaliak

[esna nago]

esna nago

gaztetan sobratu zitzaidan apurra eskuetan
argazkiak non egunak zeharkatu bainituen
atergabe

eta maskara bakoitzaren atzean ernatzen da
joanik ere bizi denaren heriotza

argia ihartu da hiriko ertz mortuan
idazten dut bizirauteko

ezkutukoaz nahitaez mintzo denak bezala

gordeleku dudan gorputz hau
ahitu da

zenbat ote dira gau ukigabeak
itsas sakonean? aurpegi oraino gaztea izan zen
zoratu ninduen altxor bizigarria

gorputzak kondematzen nau bizitzera
ikareriz ikareri idazteko ezerezera

baina esna nago
luzaz nire ondoren
ahaztutako
gorputzaren dirdai baten zain
neure infernuko atean

Udazkeneko eskutitzak

Lo zaudela, argizko bisaia bat eraikitzen dut zure ametsaren linboan.

Ukizazu, eta ni esnatu.

Nirekin ibiltzeko eskatzen dizut, bisaia haren ezinegonean, eta bakardadetik zintzilik dagoen poztasun honetan.

Zure zain nengoen aspaldi, elkarrekin ihesean joateko. Eta ez nekien ihesa posible zenik, isats arteko estratetan barrena itsasalderantz.

Egizu lo, eta onartzazu nire bihotzak zureari aditzea. Su hartu nahi dut zurekin eternitate honetan, osatua baitago gurutzatutako zubiez, km gautarrez eta asfaltozko segundoez.

Atzean gelditu zen hiria.

Eta badakizu taxi bat hartzean baizik ez dagoela hiririk. Eta goiza arte galtzen gara —elkarri

adio ezin esan gabe, ezin baitzaio grinari adiorik esan.

Bihar, edo lo zaudela —oraintxe berean— zuregan pentsatu behar dut. Behin eta berriz: orduak min eman arte larruazal gainean, eta egunen joana iragan arte, hegadaren zentzua galdutako hegaztiak pasatzen diren bezala —inguru guztiak zure gorputzaren forma hartu arte.

Eta niregan zabiltzan arte —gauaz eskua luzatu, eta esnatzen zaitudanean, ene begien suan.

Sumendi bat dago loaren akaberan.

Bat-batean, goiza. Lanbroa. Txori bat. Inguruko gauzak beren sekretuekin —baina hitzek existitzen direla diotelako existitzen dira gauzak, aski ongi dakizu. Eta gauzen sekretuak niregan daude —eta ez gauzetan.

Goizeko mastan gora igotzen naizenean, kristalezko hiri bat aurkitzen dut. Zerorrek ekarri didazu opari gorputzean.

Eta arnasarekin ukituko bazintut, diozuna adituko
nuke:

— *Egunen desolazioan, begiradatik daridan
eztia jaten duzu.*

Utzi behar dizudan horretan pentsatzen dut: lore eta
izarren izenak, lorediak eta konstelazioak
berregin ditzazun, eta nire heriotzaren
arintasuna —bizitza ospatzen jarrai
dezazun.

Insomnioa. Gau hotza, izuz betea. Gau azkengabea.
Deus ere ez.

Jaiki, eta leihoa irekitzen dut. Sakon hartzen dut
arnasa. Eguzki-hari batek jotzen du ohe
ondoan baztertutako ginebra botila.

Betaurrekoak jantzi, eta eguna ageri da garden, zoli,
aratz, eta bioleta usaina dago...

Zenbaitetan uste dut keinuen eta hitzen zehaztasuna
galdu dudala.

Denbora luzeegian egon naiz bakarrik —berriro ikasidut konplize izaten, adiskide, maitale, zaila zaidan arren.

Ez nau gogaitzen itsasargi abandonatu batean bizitzen jartzearen ideiak. Ez nau gogaitzen argia itzaltzeak. Ez nau gogaitzen erotu naitekeela pentsatzeak.

Horregatik edaten dut.

Edateak laguntzen du gauaren begirada zauritua orbaintzen. Mundutik bakartzen gaitu, keinuak pizten dizkigu, tabernaz taberna galdu arte.

Maitale eta hordi. Behartuak kaleetako eurira, itsasondoan erretzen diren hirietara, goizeko isiltasun urdinera.

— *Hortxe heldu da 28 dos Prazeres... eta taxi bat.*

— *Ez nazazu utzi, gelditu...*

Eta pasatzen da hogeita zortzia, pasatzen da taxia, liburu baten azalean Matisseren “*Dantza*” ikusten dugun bitartean.

Zikin, lainotsu goratzen den goizean goaz —non nire hitzak zure irribarrearekin nahasten baitira. Eta semaforoek kolorea mudatzen dute, alferrik.

Rua da Rosa, Travessa da Espera, Calçada do Combro. Isiltasuna isiltasunaren gainean. Bizitza zintzilik besarkada baten dardaran.
— *Gero arte. Nitaz oroitzen bazara, deitu.*

Ixten ditut betazalak, azkenik. Zure aurpegia nirearen irudi gainean jartzen da. Zure eskua nirearen irudian gordetzen da. Eta ispiluan ez da irudirik, ez gorputzik, ez itsasorik...

Gero, gauaz, berriz ere soa, gorputzak, euria, loa, ihesa, arima, eguna, egunak... itzulera. Telefonoa, eta Lisboa, zure absentziaren haizean xuxurlatuz.

Bizia zitala da. Ez da esan zigutena, batez ere.

Batzuetan, hiltzera goazela iruditzen zaigunean, zentzugabetzat jotzen dugu dena bukatuko dela jakitea. Hain zuzen ere, solaskide bat aurkitua genuenean.

Bizitza pasatzen dugu isiltasun antzeko batean, kraskatzen den mututasun izugarrian; gutxitan, ordea, kontatu zizkiguten gauza harrigarrien aurrean.

Baina berandu da. Gauza harrigarriak pasakorrak ziren, laburrak. Eta ezin da atzera itzuli.

Badut adiskide bat, dioena:

— *Badakizu, egia ez da sekula bukatzen.*

Alabaina, zer ote da egia, hilda gaudenean?

Maitatzen eta idazten duenaren aurrean, bat-batean altxatzen diren Kaosaren eta Ordenaren gordelekuan pentsatzen dut.

Noizbait esan zenuen:

— *Grinak balio du zuri gaueko suak erakusteko.*

Esandakoa sinetsi nizun, baina jadanik ez dut lorik egiten, hil baizik ez. Ahoan itsatsi zitzaidan zure irribarrea.

Egunak ematen ditut zutaz dudan oroitzapenean urrutako paisaien zelatan. Mindura lipar bihurtutako kontinenteak gurutzatzen ditut, sakela-zuloan edo dozena-erdi hitzetan kabitzen diren lurralde txikiak.

Oroitu naiz treneko bidaia batean isiltasunaren konplizeak aurki ditzakegula —baina, nekez, almendra koloreko begiak dituen lagun bat, ondoko hau dioena:

— *Begirada ederra duzu.*

Izaturik, erantzuten duzu:

— *Zure begiradak preso hartzea onartu zuelako baizik ez da ederra nire begirada. Biok bat egiten dugun eta munduak zentzua daukan toki sakon horretan. Eta urruntasunak bereizten gaituenean, eta Lisboa ongiezaren irudipen lauso bat baino ez denean, zureganatuko duzu nire zati bat.*

Gezurra nahitaezkoa da. Egiaren mingarria gordetzeko modurik hoberena dugu.

Erreparatu, ene begien bidez ohartuko zara zeinen handia den munduko tristura. Apenas hori. Eta ez zaudenean, aurkitzen ditudan ganibet guztiekin zulatuko ditut gauaren horma suharrak.

Akaso odola darit eskumuturretatik. Akaso idatziko dizut. Akaso...

Erne begiratzen diet sabaiko arrakalei. Batetik bestera nabil haietan, gauera iritsi naiz. Noiz edo noiz, nire bakardadean pausatzen da zure begitartea.

Badira hogeit hamar urte bizitza itzali zela eskuko arrastoetan, eta hiriko lorategiak lainoan bilduak egon dira denbora horretan. Tajo ibaiak galarazi du denboraren abia.

Baina, egunen batean, oraintxe agian, eskuak zabalduko ditut logelako ilunean, eta zure aurpegiak su hartuko du.

Esku erreak, zure joanaren oroigarri.

Horregatik idazten dizut, ahoan pausatutako argiarekin. Eta hitz hauen errautsa zabaltzen dut gauaren ilunean.

Zu galtzeak bala baten hots odoldura eramanen ninduke. Geldi-geldi, maisulanak bezala eraiki zen elkarrenganako grina. Hartan ez dago nahasterik, ez okerrik.

Zure aurpegia bizia eta ezin ederragoa da —diz-diz egiten du izendatzen edo ukitzen dudanean: bizitzaren seinale, munduaren dardara eskuen malenkonian.

Horrela ostu zintudan gau batez —ezinegonaz eta ikareriez. Eta horrela zauzkat bizirik, eta zaitut maite, poemaren kanpoan eta barrenean.

Gaur, berria eta zaharra iruditzen zait dena, aldi berean, baneki bezala nire bizitza eta norantza aldatzera iritsi zarela, gero joateko.

Euria ari du kanpoan. Atergabe. Eta badirudi Lisboa
uzkurtzen dela zure loaren baitan.